

## MARTINAREN IBILBIDEA

Anne Agirre Muniozguren

*Gernika-Lumo*

Martina, neskato bat da, 16 urte dituena. Nigerian bizi da Lago izeneko herri batean.

Arraroa dirudi bere izenak Martina, baita ere Nigerian bizitzeak. Baina denak du bere zentzua.

Bere ama euskalduna zen eta “zen” esaten dut, zeren Martina jaiotzean hil egin baitzen. Bere ama Miren deitzen zen, eta Afrikan egiten zuen lan erizain. Bertan Martinaren aita ezagutu zuen.

Maitemindu ziren, eta maitasun horretatik Martina jaio zen.

Beraren aitak Osamully du izena. Aita medikua da, gizon aberats bat, baina oraindik Afrikako tradizioa segitzen du. Osamully orain bi emakumerekin ezkontuta dago.

Martinak ez ditu begi onez ikusten harreman horiek eta ez dago aitaren ideia matxistekin ados.

Berak erizaina izan nahi du, bere ama bezalaxe, Euskal Herrian ikasi eta amaren familiakoak ezagutzea da bere asmoa. (osabak, izebak, lehengusuak...).

Baina bere aitak beste plan batzuk ditu berentzat. Osamullyk nahi du ezkontzea dirudun batekin. Bere etorkizuneko senarra enpresaburu bat da, 50 urte dituena.

Martina diskriminatuta sentitzen da neska delako, bere hitzak eta beste emakume askoren hitzak ez du baliorik.

–Aita, nik Euskal Herrira joan nahi dut eta erizaintzako ikasketak egin. –esaten du Martinak.

–Alaba, ez, zuk Osansekin ezkondu behar duzu zure senarra zaindu eta noski umeak eduki. –esan zuen Osamullyk.

–Hau ez da bizitza! nire amak ez zuen nahiko hau. Nik ikasi egin nahi dut, ez dut nahi ezkondu agure zahar horrekin!

Aita oso haserre jarri zen eta zaplazteko bat eman zion, logelara bidali zuen segituan.

–Nahi dut hobeto pentsatzea, eta jakin dezazun hemen nik bakarrik agintzen dudala. –esan zuen Osamullyk.

Martinak lau egun igaro zituen logelan. Negarez eta ura eta ogia jaten. Asko pentsatzen zuen Afrikako emakumeetan, bakarrik direla esklabo batzuk senarren eskuetan.

Lau egun horietan inkomunikatuta egon zen. Martinak denbora asko eduki zuen pentsatzeko, guztien gainetik bere amaren oroitzapenak etortzen zitzaizkion burura. Ez zuen oroitzapen askorik. Oroitzapen bakarra zuena argazki bat zen zuri beltzean.

Bere burutik galdera asko pasatzen zitzaion: zelako bizitza izango zuen? Zein izango zen bere janari gustukoena...

Ez zuen galdera horiei erantzuteko ezer ere. Bere aitak ez zion ezer ere esaten bere amari buruz.

“Noiz maitemindu zen nire ama gizon horrekin?” pentsatu zuen.

Bakarrik espero zuen Euskal Herrira lehenbailehen heltzea eta erantzuna ezagutu nahi zuen. Bere burua lehertzeko zorian zegoen. Saiatu zen lo egiten, baina lo egitea ez zen irtenbide bat. Bere azken pentsamendua loak hartu baino lehen bere amari buruzkoa izan zen. Baina ziur zegoen zerutik lagunduko ziola bere ibilbidean. Bat-batean nabaritu zuen bere begiak gero eta indar gutxiagorekin zeudela, gutxika-gutxika loak hartu zuen.

Lau egun igaro ondoren, Martinaren aitak logelatik uzten dio irteten, baina esaten dio ez saiatzeko ihes egiten, kontrolatuta izango baitu.

–Alaba maitea, hau da zuretzat hoberena, gainera hemendik aurrera burka jarri beharko duzu laster zure ezkontza antolatzen hasiko garelako.

Martina isildu egiten da, ez duelako beste zaplazteko bat hartu nahi baina zeozer pentsatu behar du, ihes egiteko.

–Mesedez, aita, ez dut ihes egingo, baina ez behartu burka jartzera. –esan zuen Martinak.

–Oraintxe ez dago zure ama, orain nik agintzen dut. –esan zuen Osamullyk.

Martinak erabakitzen du, inoiz ere ez egitea kontra bere aitari eta begiak lurrera begira, jantzi itsusi hura jartzen du.

Egun guztietan bere aitaren lagunek kontrolatzen dute.

Martinak harreman onak ditu bere gaztelaniazko andereñoarekin, kontatu zion berak zuen arazoa eta bururatu zitzaion plana kontatu zion.

Irakasleak kontaktu asko zituenez erabaki zuen laguntzea Afrikatik irteten eta horrela zoriontsu bizi izateko.

Bien artean plan bat pentsatu zuten, irakasleak ez zion aprobaturiko eta horrela klasetik kanpo gelditu beharko zen berarekin. Ordu horietan ihes egiteko aukera izango zuen.

Heldu zen Martinak ihes egiteko eguna. Goizean oso triste zegoen zeren jakitun zegoen bide luze bat gelditzen zitzaiola.

–Ez al duzu goserik? Ez al duzu gosalduko? –esaten dio bere aitak.

Martinak bere buruan pentsamendu asko zituen.

–Aita, azterketen emaitzarekin kezkatuta nago. –esaten du Martinak.

–Gainditu beharko dituzu azterketak nota onarekin bestela etxean geldituko zara etxeko lanak egiten. (ohea egin, bazkaria prestatu, etxea atontzen...)

Martinak ez dio erantzuten ez txartzeko gauzak gehiago. Arratsaldea heldu zenean dena zegoen planeatua. Andereñoak entretenitzen zuen Marti-

naren aitaren laguna eta Martinak ihes egiten zuen.

Lortu zuen ihes egitea, andereñoaren lagunekin seguru jarri zen.

Osamully ohartu zenean beranduegi zen, Martina urrun zegoen.

Hiru hilabete pasatu ondoren Martina heldu zen bere helmugara, hau da, Euskal Herrira. Asko sufritu zuen.

Bere azalak zikatriz asko ditu, baina bere bihotza zoriontsu dago orain.

Ez du inoiz ere ahaztuko bide hori, orbain horiek ikustean oroitzapen txarrak datozkiolako burura. Asko kostatzen zaio sinestea mundu honetan bere aita-lako pertsonak daudela. Gizonen eta andreen artean diferentzi bat bakarrik dago, eta hori fisikoa da.

Orain Martinak 30 urte ditu eta erizaina da ama bezalaxe.